ANA GALARRAGA (Laudatio)

Ana Galarraga, Aiestaran, bi abizenak esaten ditut amarena garrantzizkoa delako, zu ere ama izanda gustatuko litzaizuke zuen seme-alabak zurea eramatea mundutik zehar.

Zarauztarra, peto petoa, herriko bizitzarekin asko eta sakon konprometitua. Pagoeta mendi elkarteko urte askotan kidea izan zara, eta ez hori bakarrik zuzendaritza-batzordean, hau da, lana egiten ere. Esan digute bai, nolakoa zinen mendi irteeretan beti aurretik, energiaz beterik besteak jarraitu ezinik. Hortik aparte Alproja antzerki taldekoa izan zara ere urte dezentetan.

Ikasita albaitaritza baina bukatu bezain pronto, elikadura zela kasu horretan animaliena, Gasteizen Elikagaien Zientzia eta Teknologia ikasketak burutu zenituen eta hortik nolabait hasi zinen zientzia eta teknologia mundura gerturatzea. 2001ean Elhuyarreko beka bat lortu zuen eta orduan aukera sortu zitzaion kazetaritzarekin uztartzea ikasitako. Lan hura amaitu ondoren bertan geratzea eskaini zioten eta handik hona Elhuyarreko kidea da, komunikazio eta dibulgazioan erreferentea.

Zientziaren dibulgazioa lanbideaz gain bere pasioetako bat da. Zabaltzen den modua eta zabaltzen den hizkuntzan ere inporta zaio asko. Ez edozein modutan ez edozein hizkuntzan. Anak euskara maite du, horrela euskera eta euskarrien ekoizpenarekin duen konpromisoa ulertzen da. Ez edozein modutan diogunean azaldu nahi dugu, nola kontatzen dira gauzak garrantzizkoa dela eta Anaren kasuan ikuspegi feminista da norabidea, zientzia feminista aldarrikatzen du bere proiektuetan eta berari interesatzen zaion proiektuetan. Ildo horretatik animatzen zaituztegu Uhin Ultramorea podcasta entzutera, Alaitz Otxoa de Eribe zarauztarrarekin batera egiten duena.

Idazketa da berarentzat klabea dibulgazioa egiteko eta esan dezakegu hitzak zabaltzeko gaur egun bizi garen garaietako aukera guztiak lantzen dituela: liburuak, baita tailerrak, irratsaioak, telebista, webgunea, podcastak, mikrobideoak, ekitaldi publikoak... Horietan guztietan lan egiten du Anak, eta guztientzako edukiak sortzen ditu, nahiz eta esan behar umeak direla gehien edo asko interesatzen zaion gizataldea, sormena berarentzat denean behintzat. Hori guztia proiektu asko eta lan asko suposatzen du, baina bera, mendian bezala, beti energiaz aurrera doa beldurrik gabe.

Anaren pertsonalitatea indartsua da, beti jakin minez eta zientzia gizarteratzean buru-belarri eta hori da nolabait nahi geniona eskertu ZarautzOnen aldetik ohorezko bazkide izateko bera pertsona egokia zela pentsatu genuenean. Euskararekin duen konpromisoa ere baloratu genuen eta azkenik beti beregana jo dugunean han egon delako guri laguntzeko prest.

Ana eskertzen dizugu bihotzez gure sari xume hau onartu duzulako eta gaur gurekin zaudelako. Besarkada estu bat eta espero dugu ZarautzOneko bidelagun izaten jarraituko duzula.

Mila, mila esker, bihotzez.